# *OSPITALE ESTATISTIKA*
*ESTADÍSTICA HOSPITALARIA*

## EMAITZEN ANALISIA
ANÁLISIS DE RESULTADOS

# 2001

Eustat
EUSKAL ESTATISTIKA ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE ESTADÍSTICA
www.eustat.es

## INTRODUCCIÓN

La Estadística Hospitalaria, que viene realizándose desde el año 1985 junto a la Estadística Extrahospitalaria y la Estadística de Entidades de Seguro Libre de Asistencia Médico-Farmacéutica, suministra una importante base de información para el conocimiento del sector sanitario vasco en lo que respecta a recursos humanos y materiales, así como actividad asistencial y económica, facilitando con ello las labores de planificación, gestión y coordinación de los servicios sanitarios en la C.A. de Euskadi.

El análisis que se presenta a continuación tiene por finalidad dar a conocer la situación de la actividad sanitaria desarrollada en los 46 centros hospitalarios tanto públicos como privados de la C.A. de Euskadi durante el año 2001 y la comparación con los datos del último quinquenio.

Los centros hospitalarios incurrieron a lo largo de 2001 en un gasto total que asciende a 1.166 millones de euros, lo que representa el 2,7% del PIB de la C.A. de Euskadi. Asimismo, los 279.466 pacientes que recibieron el alta hospitalaria en 2001 ocasionaron un total 2.394.332 días de estancia en las 8.111 camas que tiene a su disposición la red sanitaria vasca; a esto debemos añadir las 1.982.324 consultas externas atendidas y 204.209 intervenciones quirúrgicas realizadas. Estas son, en resumen, las cifras globales del sector en el año 2001.

## SARRERA

1985etik egiten dugun Ospitale Estatistikak, Ospitaleez Kanpoko Estatistika eta Asistentzia Mediko-Farmazeutikoko Aseguru Libreko Entitateen Estatistikarekin batera, informazio garrantzitsua ematen du Euskal AEko osasun-sektorea ezagutzeko, bai giza baliabideei eta baliabide materialei dagokienez, bai laguntza-jarduerei eta jarduera ekonomikoei dagokienez. Horren ondorioz, Euskal AEko osasun-zerbitzuen plangintza, kudeaketa eta koordinazioa errazago egin ahal izango dira.

Orain aurkeztu dugun analisi honen helburua honakoa da: 2001ean, Euskal AEko 46 ospitaleetan (publikoetan zein pribatuetan) izan den jarduera sanitarioaren egoera ezagutaraztea eta azkeneko bost urteetako datuekin alderatzea.

2001ean, ospitaleek guztira 1.166 milioi euroko gastua izan zuten, hau da, Euskal AEko BPGaren %2,7. Halaber, 2001ean ospitaleko alta jaso zuten 279.466 gaixoek 2.394.332 egun pasa zituzten Euskadiko osasun-sareko 8.111 oheetan. Horiei, arreta egindako 1.982.324 kanpo-kontsulta eta 204.209 ebakuntza kirurgiko gehitu behar zaizkie. Hona hemen, laburtuta, sektorearen zifra globalak, 2001. urtean.

Evolución del gasto hospitalario en la C.A. de Euskadi. 1996-2001 (miles de euros) — Gráfico 1 Grafikoa — **Ospitale-gastuaren bilakaera Euskal AEn. 1996-2001 (mila euro)**



Observando la evolución de estas cifras desde 1996 hasta 2001, el gasto en el sector hospitalario ha experimentado un crecimiento del 32,4%, con una tasa media anual acumulada del 5,8%. Por otro lado, mientras en 1996 el sector hospitalario representaba el 3% del PIB de la C.A. de Euskadi, en 2001 pasó a representar un 2,7%, lo que pone de manifiesto que el crecimiento del gasto hospitalario ha sido inferior al crecimiento del PIB. Por partidas, el mayor crecimiento se registró en otros gastos corrientes, mientras que el gasto en inversión fue el que menos creció.

Según la dependencia de los hospitales, los públicos concentraron el 84,2% del gasto total del sector, con un incremento del 9,4% respecto al año 2000, mientras que los centros hospitalarios privados, con el 15,8% del gasto total, lo incrementaron un 4,3%.

En cuanto a la financiación de ese gasto, la procedencia de los recursos fue un año más fundamentalmente pública, cubriendo el 89% de los gastos totales de la sanidad hospitalaria, y el restante 11% quedó en manos de la financiación privada. Ambos porcentajes se mantienen en la línea de las cifras correspondientes al año 2000.

Zifra horiek 1996tik 2001 era izan duten bilakaera aztertuta, ospitale-sektoreko gastuak %32,4ko hazkundea izan duela ikusten da, urteko batez besteko %5,8ko tasa metatuarekin. Bestalde, 1996an, ospitale-sektoreak Euskal AEko BPGaren %3 hartu zuen eta 2001ean, berriz, %2,7; beraz, ospitale-gastuaren hazkundea BPGarena baino txikiagoa izan da. Partidaka, hazkunderik handiena bestelako gastu arruntetan izan zen eta txikiena, berriz, inbertsioetako gastuan.

Ospitale publikoek sektoreko guztizko gastuaren %84,2 hartu zuten, %9,4ko gehikuntzarekin, 2000. urtearen aldean. Ospitale pribatuek, aldiz, guztizko gastuaren %15,8 hartu zuten, %4,3ko gehikuntzarekin.

Gastuaren finantzaketari dagokionez, baliabideen jatorria batez ere publikoa izan zen: ospitaleetako guztizko gastuaren %89 finantzatu zuen eta gainerako %11 finantzaketa pribatuaren kontura joan zen. Ehuneko biak 2000. urteko zifren ildo berean kokatzen dira.

### 1. TAULA: OSPITALEKO ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA. 1996-2001
TABLA 1. EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES VARIABLES HOSPITALARIAS. 1996-2001

| | 2001 | 2000 | Δ 01/00 | 1996 | Δ 01/96* |
|---|---|---|---|---|---|
| **BALIABIDEAK** | | | | | |
| RECURSOS | | | | | |
| **Ospitale-kop.** / Número de hospitales | 46 | 49 | -6,1 | 52 | -2,4 |
| **Langileak guztira** / Total personal | 19.452 | 19.156 | 1,5 | 19.257 | 0,2 |
| **Osasun langileak** / Personal sanitario | 14.605 | 14.275 | 2,3 | 14.145 | 0,6 |
| **Medikuak** / Médicos | 4.051 | 4.007 | 1,1 | 3.843 | 1,1 |
| **Erizaintza** / Enfermería | 5.448 | 5.296 | 2,9 | 5.202 | 0,9 |
| **Osasungintzako beste langileak** / Otro sanitario | 5.106 | 4.972 | 2,7 | 5.100 | 0,0 |
| **Gainerako langileria** / Personal no sanitario | 4.847 | 4.881 | -0,7 | 5.112 | -1,1 |
| **Oheak** / Camas | 8.111 | 8.206 | -1,2 | 8.691 | -1,4 |
| **ASISTENTZI JARDUERA** | | | | | |
| ACTIVIDAD ASISTENCIAL | | | | | |
| **Ospitaleratzeak** / Ingresos de pacientes | 279.659 | 275.947 | 1,3 | 255.574 | 1,8 |
| **Batez besteko egonaldia (egunak)** | | | | | |
| Estancia media (días) | 8,6 | 8,8 | -2,3 | 9,9 | -2,8 |
| **Gaixoen altak** / Altas de pacientes | 279.466 | 275.984 | 1,3 | 255.401 | 1,8 |
| **Kanpo-kontsultak** / Consultas externas | 1.982.324 | 1.961.756 | 1,0 | 1.758.190 | 2,4 |
| **Larrialdiak** / Urgencias atendidas | 959.496 | 914.731 | 4,9 | 806.150 | 3,5 |
| **Ebakuntza kirurgikoak** / Intervenciones quirúrgicas | 204.290 | 197.976 | 3,2 | 178.922 | 2,7 |
| **Erditzeak** / Partos | 17.650 | 17.232 | 2,4 | 16.164 | 1,8 |
| **JARDUERA EKONOMIKOA (MILA □)** | | | | | |
| ACTIVIDAD ECONÓMICA (MILES □) | | | | | |
| **Guztizko gastua** / Gasto total | 1.166.122 | 1.073.741 | 8,6 | 880.627 | 5,8 |
| **Gastu arruntak** / Gastos corrientes | 1.103.068 | 1.022.966 | 7,8 | 845.450 | 5,5 |
| **Pertsonal-gastuak** / Gastos de personal | 719.546 | 668.589 | 7,6 | 591.925 | 4,0 |
| **Bestelako gastu arruntak** | | | | | |
| Otros gastos corrientes | 383.522 | 354.377 | 8,2 | 253.525 | 8,6 |
| **Inbertsioak** / Inversión | 63.054 | 50.776 | 24,2 | 35.177 | 12,4 |
| **Guztizko sarrera** / Ingreso total | 1.100.695 | 1.001.903 | 9,9 | 898.735 | 4,1 |
| **Sarrerak** / Ingresos corrientes | 1.076.482 | 979.298 | 9,9 | 844.819 | 5,0 |
| **Salmentak** / Ventas | 1.067.809 | 970.673 | 10,0 | 146.485 | 48,8 |
| **Dirulaguntzak** / Subvenciones | 8.673 | 8.625 | 0,6 | 698.334 | -58,4 |
| **Kapital-sarrerak** / Ingresos de capital | 24.213 | 22.605 | 7,1 | 53.917 | -14,8 |
| **ADIERAZLE EKONOMIKOAK** | | | | | |
| **INDICADORES ECONÓMICOS** | | | | | |
| **Gastua/Biztanleko (eurotan)** | | | | | |
| Gasto/Habitante (Euros) | 560 | 517,4 | 8,2 | 419,7 | 5,9 |
| **Gastua/BPG** / Gasto/P.I.B. | 2,7 | 2,6 | 3,8 | 3,0 | -2,1 |

(*) **Urteko batez besteko tasa metatua /** Tasa media anual acumulativa.

En lo que a actividad asistencial se refiere, se puede destacar que en los centros hospitalarios de la red pública vasca, respecto a 2000, ha aumentado el número de ingresos hospitalarios (+1,3%), el de urgencias atendidas (+4,9%), las consultas externas (+1%), las intervenciones quirúrgicas realizadas (+3,2%), así como el número de partos (+2,4%). Por otro lado, en los centros hospitalarios públicos se ha reducido el número de camas (-1,2%) y la estancia, bajando de 8,8 a 8,6 los días que como media permanece hospitalizado cada ingresado.

Ospitaleetako jarduerari dagokionez, honako hauek nabarmentzen dira, 2000ren aldean: igo egin dira ospitaleratze-kopurua (%+1,3), larrialdiena (%+4,9), kanpo--kontsultena (%+1), ebakuntza kirurgikoena (%+3,2), eta erditzeen kopurua ere (% ++2,4). Bestalde, ospitale publikoetan ohe-kopurua (%-1,2) eta egonaldia murriztu egin dira eta ospitaleratu bakoitzak ospitalean egiten duen batez besteko egonaldia 8,8 egunetik 8,6ra murriztu da.

## CENTROS HOSPITALARIOS

La C.A. de Euskadi cuenta con una red de 46 hospitales de los cuales 18 son públicos y 28 son de carácter privado. Por territorios, la mitad de ellos (23) están ubicados en Bizkaia, 16 en Gipuzkoa y 7 en Alava y, atendiendo a su finalidad, se clasifican en 31 hospitales de agudos, 6 de media-larga estancia (crónicos) y 9 son psiquiátricos.

Respecto a 2000 se ha producido una disminución del número de centros de 49 a 46. Esto se ha debido a que en Gipuzkoa se ha creado el complejo Donosti, que engloba tres centros, dos privados y uno público.

## OSPITALEAK

Euskal Autonomia Erkidegoak 46 ospitaleez osatutako sarea du: 18 publikoak dira, eta 28 izaera pribatukoak. Lurraldeka, erdiak (23) Bizkaian daude, 16 Gipuzkoan eta 7 Araban. Xedeari dagokionez, honakoa da sailkapena: 31 akutuen ospitaleak dira, 6 egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak (kronikoak) eta 9 psikiatrikoak.

2000tik hona, ospitaleak gutxitu egin dira, 49 zentrotik 46ra. Hori horrela izan da Gipuzkoan Donostia konplexua sortu delako eta berak hartzen dituelako hiru zentro, bi pribatu eta publiko bat.

Distribución de los centros hospitalarios por territorio histórico (%) Gráfico **2 Grafikoa** **Ospitaleen banaketa lurraldeka (%)**




En cuanto al tamaño de los hospitales (por número de camas instaladas), la C.A. de Euskadi cuenta en 2001 con 12 hospitales con menos de 50 camas instaladas, 10 centros poseen entre 51 y 100 camas, 14 tienen una capacidad de entre 101 y 200 camas, 6 están entre 201 y 450 camas, 2 entre 450 y 800 y finalmente existen otros 2 hospitales con una capacidad superior a 800 camas instaladas (880 y 1.130 camas respectivamente).

Tamainaren araberako banaketari dagokionez (ohe-kopuruaren arabera), Euskal AEn 2001ean, 12 ospitalek 50 ohe baino gutxiago dituzte; 10ek, 51 eta 100 ohe artean; 14k, 101 eta 200 ohe arteko kopurua; 6k, 201 eta 450 artekoa; 2k, 450 eta 800 artekoa; eta, azkenik, 2 ospitalek, 800 ohetik gorako edukiera dute (880 eta 1.130 ohe, hurrenez hurren).

## PERSONAL

La plantilla de la red de hospitales de la C.A. de Euskadi estaba integrada en 2001 por un total de 19.452 profesionales, de los cuales 14.605 correspondieron a personal sanitario, constituyendo el 75% del total, y 4.847 eran personal no sanitario. El personal sanitario incluía 4.051 facultativos médicos, 5.448 como personal de enfermería y 5.106 personas con otras actividades de tipo asistencial.

El 87,8% del personal, es decir 17.074 trabajadores, desarrolla su actividad laboral a jornada completa (más de 30 horas semanales), 959 personas están sujetos a jornada parcial (menos de 30 horas) y los restantes 1.419 son colaboradores habituales no vinculados al hospital.

Es asimismo destacable la diferencia que se observa en la vinculación laboral del personal con los centros según sean estos de dependencia pública o privada. Así, en los centros públicos el 95% del personal trabaja a jornada completa, el 4,9% a jornada parcial y un casi inapreciable 0,1% es colaborador habitual no vinculado al hospital. Sin embargo, en los centros privados el personal no vinculado alcanza el 32,6%, mientras que del vinculado al hospital un 62,3% trabaja a jornada completa y un 5% a jornada parcial.

## LANGILEAK

Euskal AEko ospitale-sareko lanpostuen zerrenda 19.452 profesionalek osatu zuten 2001ean; horietatik 14.605, osasun-langileak ziren eta guztizkoaren %75 hartu zuten eta 4.847 gainerakoak, hau da, osasun-langileak ez direnak. Hona hemen pertsonal sanitarioa: 4.051 mediku fakultatibo, erizaintzako 5.448 langile eta osasun arloko bestelako jarduera duten 5.106 pertsona.

Pertsonalaren %87,8k, hau da 17.074 langilek lanaldi osoan lan egiten dute (30 ordu baino gehiago astean), 959 lagun lanaldi partzialean aritzen dira (30 ordu baino gutxiago astean) eta gainerako 1.419 langileak ospitaleari lotu gabeko ohiko lankideak dira.

Era berean, aipatzekoa da pertsonalaren lan-loturen arteko desberdintasuna, zentroak publikoak ala pribatuak diren kontuan hartuta. Izan ere, zentro publikoetan langileen %95ek lanaldi osoan lan egiten du, %4,9k lanaldi partzialean eta %0,1 urria ospitaleari lotu gabeko ohiko lankidea da. Zentro pribatuetan, aldiz, lotura gabeko pertsonalak guztizkoaren %32,6 hartzen du eta ospitaleari lotutako langileen artean %62,3k lanaldi osoan lan egiten du eta %5ek lanaldi partzialean.

Distribución del personal hospitalario por categoría profesional. C.A. de Euskadi (%) — Gráfico **3** **Grafikoa** — **Ospitaleko langileen banaketa, lanbide-kategoriaren arabera. Euskal AE (%)**




Entre 1996 y 2001 el total del personal hospitalario se ha incrementado un 1%. Esto se ha debido fundamentalmente al aumento de la cifra de personal sanitario (+3,3%) y, dentro de éste, al número de facultativos (+5,4%) y de personal de enfermería (+4,7%), mientras que el resto del personal asistencial apenas ha variado desde 1996 (+0,1%). Por el contrario, el personal no sanitario ha descendido un 5,2%, aunque su peso en la cifra total de personal es inferior.

1996 eta 2001 artean, ospitaletako langileen guztizkoa %1 hazi da. Hori, pertsonal sanitarioaren kopurua gehitzeak (%+3,3) eragin du, batez ere, eta horien barruan, fakultatiboen kopurua (+5,4%) eta erizaintzako pertsonalarena (+4,7) gehitzeak, gainerako asistentzia-pertsonala apenas aldatu baita 1996tik (+4,7). Pertsonal ez-sanitarioa, aldiz, %5,2 murriztu da, guztizko pertsonalaren zifran duen pisua txikiago den arren.

Atendiendo a la dependencia de los hospitales, el 78% del personal prestaba su servicio en centros de Osakidetza y el restante 22% en centros hospitalarios privados. Por finalidad, los hospitales de agudos contaban con 17.192 trabajadores, es decir, el 88,4% de la plantilla hospitalaria, mientras que los de media-larga estancia (crónicos) y los psiquiátricos se repartían los restantes 4,4% y 7,2% respectivamente.

Ospitaleen mendekotasunari dagokionez, langile-multzo osoaren %78 Osakidetzaren zentroetakoak dira; gainontzeko %22, zentro pribatutakoak. Gaixo akutuentzako ospitaleek 17.192 langile dituzte, ospitaleetako guztizko kopuruaren %88,4; egonaldi ertain eta luzekoek (kronikoek) eta psikiatrikoek, %4,4 eta %7,2, hurrenez hurren.

Evolución de la distribución del personal por categoría. C.A. de Euskadi. 1996-2001. (Número) Gráfico 4 **Grafikoa Langileen banaketaren bilakaera, kategoriaka. Euskal AE. 1996-2001. (kopurua)**




## DOTACIÓN

El número total de camas instaladas en los hospitales de la C.A. de Euskadi se cifraba en 2001 en 8.644, estando en funcionamiento en ese año 8.111. Éstas pertenecen un 66,8% a hospitales públicos y un 33,2% a centros privados. Según la finalidad del hospital, los hospitales de agudos absorbieron el 69,1% del total de camas en funcionamiento, los psiquiátricos el 22,9% y los de media-larga estancia el restante 8%.

En los últimos años, el número de camas hospitalarias ha mostrado una tendencia descendente, pasando de 8.691 camas en 1996 a 8.111 en 2001, con un descenso porcentual del 6,7%. Este descenso se observa tanto en el sector público (4,2%), como en el privado (11,2%). Según la finalidad de los hospitales, el descenso del número de camas también ha sido generalizado, aunque en distinta medida según el tipo de hospital; así en media-larga estancia el descenso en el número de camas ha sido del 16,5%, en agudos del 7,1%, mientras que en los psiquiátricos el descenso ha sido prácticamente inapreciable, en torno al 1%.

En lo que respecta a la distribución del número de camas por especialidad médica, destacan psiquiatría (25%), medicina interna y especialidades médicas (24,6%), ciru-

## HORNIKUNTZA

2001ean, guztira 8.644 ohe zeuden instalaturik; funtzionamenduan, berriz, 8.111. Ohe horietatik %66,8 ospitale publikoetakoak dira; eta %33,2, pribatuetakoak. Ospitaleen helburuaren arabera, akutuentzako ospitaleek funtzionamenduan zeuden ohe guztien %69,1 bildu zuten; psikiatrikoek, %22,9; eta egonaldi ertain eta luzekoek, gainontzeko %8.

Ospitaletako ohe-kopuruak beheranzko joera izan du azken urteetan: 1996an, 8.691 ohe zeuden; 2001ean, berriz, 8.111 baino ez, hau da, %6,7 jaitsi da. Beherakada hori sektore publikoan ez ezik (%4,2) sektore pribatuan (%11,2) ere antzeman da. Ospitaleen helburuaren arabera ere, orokorra izan da ohe-kopurua murriztea, ospitale-motaren arabera aldeak egon diren arren. Horrela, egonaldi ertain eta luzekoetan, ohe-kopurua %16,5 gutxitu da, akutuentzakoetan, %7,1, eta psikiatrikoetan, berriz, %1 inguru besterik ez da jaitsi.

Ohe-kopurua espezialitateka banatzerakoan, aipatzekoak dira psikiatria (%25), barne-medikuntza eta mediku-espezialitateak (%24,6), kirurgia (%18), traumatologia-

gía (18%), traumatología-ortopedia (10,8%) y ginecología-obstetricia (5,8%) como las especialidades con mayores porcentajes; el resto de especialidades no alcanza el 5%.

-ortopedia (%10,8) eta ginekologia-obstetrizia (%5,8) ehuneko handienak eurok hartzen dituztelako; gainerako espezialitateak ez dira %5era iristen.

Distribución del número de camas por especialidad médica. C.A. de Euskadi (%) Gráfico 5 **Grafikoa** **Ohe-kopuruaren banaketa, mediku-espezialitateka. Euskal AE (%)**




Otra dotación a reseñar en los centros hospitalarios de la C.A. de Euskadi, en funcionamiento durante 2001, son 198 quirófanos (118 en centros públicos y 80 en privados), 837 salas de consultas externas (528 en públicos y 309 en privados), 172 salas de Rayos X (123 y 49) y 35 paritorios (22 y 13 respectivamente).

2001ean funtzionatu duten Euskal AEko ospitaleetan, beste hornikuntza aipagarririk bada: 198 ebakuntza-gela (118 zentro publikoetan eta 80 pribatuetan), kanpo-kontsultetarako 837 gela (528 zentro publikoetan eta 309 pribatuetan), X izpien 172 gela (123 publikoetan eta 49 pribatuetan) eta 35 erditze-gela (22 eta 13, hurrenez hurren).

**2. TAULA: EUSKAL AE-KO OSPITALEETAN FUNTZIONAMENDUAN ZEUDEN HORNIKUNTZAK 2001-XII-31N**
TABLA 2. DOTACIÓN EN FUNCIONAMIENTO A 31-XII-2001 EN HOSPITALES DE LA C.A. DE EUSKADI

| | **Guztira** / Total | **Publikoak** / Públicos | **Pribatuak** / Privados |
|---|---|---|---|
| **Oheak** / Camas | 8.111 | 5.371 | 2.740 |
| **Inkubagailuak** / Incubadoras | 104 | 87 | 17 |
| **Ebakuntza-gelak** / Quirófanos | 198 | 118 | 80 |
| **Erditze-gelak** / Paritorios | 35 | 22 | 13 |
| **Kanpo-kontsultetarako gelak** / Salas de consultas externas | 837 | 528 | 309 |
| **X izpien gelak** / Salas de rayos X | 172 | 123 | 49 |
| **OTA unitateak** / Unidades de T.A.C. | 26 | 17 | 9 |
| **Erresonantzia magnetikoa** / Resonancia magnética | 11 | 9 | 2 |
| **Litotriziako unitateak** / Unidades de litotricia | 4 | 3 | 1 |
| **Hemodinamika-aretoak** / Salas de Hemodinámica | 9 | 6 | 3 |
| **Angiografia digitala** / Angiografía digital | 11 | 9 | 2 |
| **Gammaganbarak** / Gammacámara | 12 | 8 | 4 |
| **Megaboltaje-unitateak** / Unidades de megavoltaje | 10 | 7 | 3 |
| **Hemodialisi-makinak** / Máquinas de hemodiálisis | 150 | 105 | 45 |

## ACTIVIDAD ASISTENCIAL

### Pacientes atendidos

En 2001 un total de 279.466 pacientes (+1,3% respecto a 2000) fueron dados de alta en los hospitales de la C.A. de Euskadi, de los cuales el 74,6% fueron asistidos en hospitales públicos y el 25,4% restante en privados. Por finalidad, el 96,9% del total de altas se registró en hospitales de agudos, un 2,1% en los de media-larga estancia (crónicos) y el 1% restante en psiquiátricos.

Desde 1996, el volumen de altas hospitalarias se ha incrementado un 9,4%, si bien existen claras diferencias según la dependencia de los hospitales, siendo el incremento un 12% en los hospitales públicos frente a un 2,4% en los privados.

También por la finalidad del hospital hay diferencias; así, tanto los centros de media y larga estancia como los psiquiátricos muestran un descenso en el número de pacientes atendidos durante este quinquenio (19,2% y 15,4% respectivamente), mientras en los hospitales de agudos se incrementan un 10,6%.

## ASISTENTZI-JARDUERA

### Atenditutako gaixoak

2001ean, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaletan 279.466 alta eman ziren (%+1,3, 2000ren aldean); horietatik %74,6 ospitale publikoetan, eta %25,4, pribatuetan. Alta guztien %96,9 akutuentzako ospitaleetan gertatu ziren; %2,1, egonaldi ertain eta luzekoetan (kronikoetan); eta gainontzeko %1, psikiatrikoetan.

1996tik, ospitaleko alten bolumena %9,4 hazi da, alde nabarmenak dauden arren ospitaleen mendekotasunaren arabera. Hazkundea %12koa izan da ospitale publikoetan eta %2,4koa pribatuetan.

Ospitaleen helburuaren arabera ere badira aldeak: egonaldi ertain eta luzeko zentroek eta psikiatrikoek gaixo gutxiago atenditu dituzte bosturteko honetan (%19,2 eta %15,4, hurrenez hurren), eta akutuentzako ospitaleetan, aldiz, %10,6 gehiago.

Evolución del número de pacientes dados de alta en hospitales de la C.A. de Euskadi. 1996-2001. Gráfico **6** **Grafikoa** **Euskal AEko ospitaleetan alta emandako gaixo-kopuruaren bilakaera. 1996-2001**




Por especialidades médicas, los mayores porcentajes en número de pacientes que fueron dados de alta corresponden a cirugía general y especialidades quirúrgicas (34,4%), medicina interna y especialidades médicas (28,5%), ginecología-obstetricia (12,2%) y traumatología y ortopedia (14,6%).

El motivo de alta fue la curación en un 92,1% de los casos atendidos en hospitales de la C.A. de Euskadi, en un 3,2% se produjo fallecimiento y el restante 5,8% se debió a traslado u otras causas.

Espezialitateen araberako banaketan, alta emandako gaixo-kopuruaren ehunekorik handienak honakoei dagozkie: kirurgia orokorra eta espezialitate kirurgikoei (%34,4), barne-medikuntza eta espezialitate medikoei (%28,5), ginekologia-obstetriziari eta traumatologia eta ortopediari (%14,6).

Euskal AEko ospitaleetan emandako alta horien %92,1 sendatzeagatik eman ziren; %3,2, hiltzeagatik, eta gainontzeko %5,8, lekuz aldatzeagatik edo bestelakoengatik.

## Estancias

Los enfermos ingresados causaron un total de 2.394.332 días de estancia, de los cuales el 69,7% correspondieron a centros públicos y el 30,3% a privados. Desde 1996 las estancias han experimentado un descenso del 5,2%, aunque este descenso es muy desigual cuando se observan las cifras diferenciando centros públicos (-1,62%) y centros privados (-12,7%). Atendiendo a la finalidad del centro, el 64,4% de las estancias correspondió a hospitales de agudos, el 27,3% a psiquiátricos y el 8,3% a establecimientos de media-larga estancia.

Por especialidad, hay que destacar que el 29,7% de las estancias correspondieron a psiquiatría, el 26,5% a medicina interna y especialidades médicas, el 15,9% a cirugía, el 8,8% a traumatología y ortopedia, el 4,7% a ginecología-obstetricia y un 4,36% a larga estancia. En el resto de los casos los porcentajes registrados fueron inferiores al 4%.

## Egonaldiak

Ospitaleratutako gaixoek 2.394.332 egote-egun eragin zituzten; horietatik %69,7 zentro publikoetan eta %30,3 pribatuetan. 1996az geroztik, egonaldiak %5,2 jaitsi dira eta alde handiak izan dira, zentro publikoen (%-1,62) eta pribatuen (%-12,7) artean. Zentroaren helburuari dagokionez, ospitaleetako egonaldien %64,4 akutuentzako ospitaleetan izan zen; %27,3, psikiatrikoetan; eta %8,3, egonaldi ertain eta luzeko establezimenduetan.

Espezialitateak kontuan hartuz, egonaldien %29,7 psikiatriakoak izan ziren; %26,5, barne-medikuntzakoak eta espezialitate medikoetakoak; %15,9 kirurgiakoak; %8,8, traumatologia eta ortopediakoak; %4,7 ginekologia-obstetriziakoak; eta, %4,36, egonaldi luzekoetakoak. Gainerako espezialitateek %4 baino ehuneko txikiagoak izan zituzten.

Evolución del número de estancias en hospitales de la C.A. de Euskadi. 1996-2001. Gráfico 7 Grafikoa **Euskal AEko ospitaleetan alta emandako gaixo-kopuruaren bilakaera. 1996-2001**




## Consultas externas

En 2001 se atendieron un total de 1.982.324 personas que acudieron a consultas externas, con un incremento acumulado del 12,7% desde 1996. En lo que se refiere a la dependencia de los centros, el 77,7% de las consultas externas atendidas en centros hospitalarios de la C.A. de Euskadi se realizó en centros públicos (+10,5% desde 1996) y el 22,3% restante en los privados (+21,2% desde 1996).

Por otro lado, la distribución de las consultas externas por especialidad fue en 2001 la siguiente: un 30,1% de las consultas se atendió en medicina interna y especialidades médicas, un 26,7% en cirugía general y especialida-

## Kanpo-kontsultak

2001ean, kanpo-kontsultetara jo zuten 1.982.324 lagun atenditu ziren, %12,7ko hazkundea metatuz 1996tik. Zentroen mendekotasunari dagokionez, Euskal AEko ospitaleetan atenditutako kanpo-kontsulten %77,7, zentro publikoetan eman ziren (%+10,5, 1996tik) eta gainontzeko %22,3, pribatuetan (%+21,2, 1996tik).

Bestalde, 2001ean, honela banatu ziren kanpo-kontsultak espezialitateen arabera: kontsulten %30,1, barne-medikuntzan eta espezialitate medikoetan; %26,7, kirurgia orokorrean eta espezialitate kirurgikoetan; %17,1, trau-

Evolución del número de consultas externas en hospitales de la C.A. de Euskadi. 1996-2001. Gráfico 8 Grafikoa **Euskal AEko ospitaleetako kanpo-kontsulten kopuruaren bilakaera. 1996-2001**




des quirúrgicas, un 17,1% en traumatología y ortopedia, 8,4% en ginecología-obstetricia y un 5,8% en rehabilitación.

matologia eta ortopedian; %8,4, ginekologia-obstetrizian; eta % 5,8, errehabilitazioan.

## Urgencias

El conjunto de hospitales de la C.A. de Euskadi atendió a 959.496 personas por la vía de urgencias en 2001, de las cuales el 87,7% correspondió a hospitales públicos. Según la finalidad del centro, prácticamente la totalidad (99,5%) se atendió en hospitales de agudos. Durante el período 1996-2001 el incremento total en el número de urgencias atendidas fue del 19%, siendo este crecimiento del 20,8% en el sector público y del 7,8% en el privado.

## Larrialdiak

2001ean, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetan, guztira 959.496 larrialdi atenditu ziren, eta horien artetik %87,7 ospitale publikoetan burutu zen. Helburua kontuan hartuta, ia guztiak (%99,5) akutuentzako ospitaleetan atenditu ziren. 1996-2001 aldian, atenditutako larrialdien guztizko igoera %19koa izan da: %20,8koa sektore publikoan, eta %7,8koa, pribatuan.

Evolución del número de urgencias atendidas en hospitales de la C.A. de Euskadi. 1996-2001. Gráfico 9 Grafikoa **Euskal AEko ospitaleetan aatenditutako larrialdi-kopuruaren bilakaera. 1996-2001**



En el 85,3% de los casos las urgencias se resolvieron sin necesidad de que se produjera un ingreso en el hospital, el 13,8% causaron el ingreso en el hospital, el 0,9% fueron trasladados a otro centro y únicamente el 0,1% resultaron en un fallecimiento del paciente.

Larrialdien %85,3 ospitaleratzeko beharrik gabe konpondu ziren, %13,8k ospitaleratzea eragin zuten, %0,9 beste zentro batera bidali ziren eta %0,1ek bakarrik ekarri zuten gaixoaren heriotza.

### Actividad en Servicios Generales

En el área de radiodiagnóstico se realizaron un total de 1.359.354 estudios de Rayos X y 2.945.333 placas. Además se realizaron 214.900 ecografías y 137.282 estudios de T.A.C. En anatomía patológica se realizaron 112.016 biopsias, 539 necropsias y 161.995 citologías.

En cuanto a la actividad en laboratorio, hay que destacar que se realizaron 3.405.837 muestras y de las cuales resultaron más de 23,5 millones de determinaciones (pruebas analíticas investigadas), que se repartieron entre hematología (17%), bioquímica (64,4%) y microbiología y parasitología (6,6%).

### Zerbitzu orokorretako jarduera

Erradiodiagnostikoaren arloan, guztira 1.359.354 X-izpi azterketa, eta 2.945.333 plaka egin ziren. Horretaz gain, 214.900 ekografia eta 137.282 TAC azterketa ere egin ziren. Anatomia patologikoan, 112.016 biopsia, 539 nekropsia eta 161.995 zitologia gauzatu ziren.

Laborategiko jardueran, 3.405.837 lagin eta 23,5 milioi determinaziotik (ikertutako proba analitikoak) gora egin ziren, eta honela banatu zen: %17 hematologian; %64,4, biokimikan; eta, %6,6 mikrobiologian eta parasitologian.

### Actividad en cirugía

En el área asistencial quirúrgica se realizaron en 2001 en la C.A. de Euskadi 204.290 intervenciones, siendo el 84,5% de ellas programadas y el 15,5% de carácter urgente. Del total de intervenciones quirúrgicas, 111.108 requirieron hospitalización (54,4%) y el 45,6% restante se practicó de forma ambulatoria. Dentro de las intervenciones ambulatorias, el 41,5% correspondieron a cirugía mayor ambulatoria, requiriendo cuidados postoperatorios de corta duración, y el 58,5% restante fueron otro tipo de intervenciones ambulatorias.

El 31,5% de las intervenciones quirúrgicas fueron practicadas con anestesia local, el 32,2% con anestesia locorregional y el 36,3% con anestesia general. Desde 1996 se viene observando un aumento de las intervenciones

### Kirurgiako jarduera

Kirurgiako asistentziaren arloan, Euskal AEn 204.290 ebakuntza burutu ziren 2001ean: horietatik %85,5 programatuak, eta %15,5 larrialdietakoak. Ebakuntza kirurgikoetan, 111.108k ospitaleratzea behar izan zuten (%54,4) eta gainontzeko %45,6 modu anbulatorioan egin ziren. Ebakuntza anbulatorioen barruan, %41,5 kirurgia handi anbulatoriokoak izan ziren eta operazio ondoko zainketa laburrak behar izan zituzten; gainerako %58,5 beste mota bateko ebakuntza anbulatorioak izan ziren.

%31,5 anestesia lokalarekin egin ziren; %32,2, anestesia lokorregionalarekin; eta %36,3, anestesia orokorrarekin. 1996az geroztik, gora egin dute anestesia lokalarekin (%+9,5) eta lokorregionalarekin (%+76,7) egindako eba-

Intervenciones quirúrgicas por tipo de intervención y por actividad en cirugía. C.A. de Euskadi. 2001 (%) Gráfico 10

**10 Grafikoa Ebakuntza kirurgikoak, ebakuntza-motaren eta kirurgiako jardueraren arabera. Euskal AE. 2001. (%)**






con anestesia local (+9,5%) y especialmente locorregional (+76,7%) frente al descenso de las realizadas con anestesia general (-10,6%), debido al incremento de la cirugía ambulatoria.

### Actividad en maternidad

El área de maternidad de los centros hospitalarios de la C.A. de Euskadi registró en 2001 un total de 21.338 ingresos de mujeres que permanecieron 67.820 días de estancia. El número de partos fue de 17.650, de los que un 85,3% fue por vía vaginal y el restante 14,7% mediante cesáreas.

En 1996 el número de partos fue de 16.164, lo que evidencia un aumento del 9,2% desde entonces hasta 2001. Merece destacarse el descenso paulatino de la proporción de cesáreas practicadas, que ha pasado de representar el 18,4% del total de partos en 1996 al 14,5% en 2001. Si bien este porcentaje varía en gran medida en función de la dependencia de los centros hospitalarios; se aprecia una disminución del número de cesáreas en ambos tipos de centros; en los centros públicos se ha pasado del 15,7% en 1996 al 12,9% en 2001 y en los centros privados del 30,6% en 1996 al 25,6% en 2001.

También se observa un aumento del número de partos múltiples en los últimos años. Así, se ha pasado de 214 habidos en 1996 a 299 en 2001, con un incremento porcentual del 39,7% (+8,7% respecto a 2000).

kuntzek; anestesia orokorrarekin egindakoak, aldiz, behera egin dute (%-10,6), kirurgia anbulatorioaren gehikuntzaren eraginez.

### Amaetxeko jarduera

2001ean, Euskal AEko ospitaleetako amaetxeek 21.338 ospitaleratze izan zituzten eta 67.820 egote-egun ekarri zituzten. Erditze-kopurua 17.650ekoa izan zen: horietatik %85,3 baginakoa izan zen, eta gainerako %18,4 zesarea bidezkoa.

1996an, erditze-kopurua 16.164koa izan zen, beraz, %9,2ko hazkundea izan da 2001 arte. Aipagarria da zesare-kopuruaren pixkanakako murriztea, 1996ko erditzeen %18,4 hartzetik, 2001eko erditzeen %14,5era jaitsi baita. Zentroaren mendekotasunaren arabera ehuneko hori asko aldatzen den arren, zentro-mota bietan murriztu dira: zentro publikoetan, 1996ko %15,7tik 2001eko %12,9ra, eta pribatuetan, 1996ko %30,6tik 2001eko %25,6ra.

Erditze anitzak, ostera, gehitu egin dira azken urteetan. 1996an izandako 214tik 2001eko 299ra pasa eta %39,7 gehitu dira (%+8,7 2000rekin alderatuta).

Evolución del número de partos en la C.A. de Euskadi. 1996-2001 — Gráfico **11** **Grafikoa** — **Euskal AEko erditze-kopuruaren bilakaera. 1996-2001**



## ACTIVIDAD ECONÓMICA

### Pacientes según régimen económico

Atendiendo al régimen económico de provisión de la asistencia hospitalaria, los pacientes ingresados en centros de la C.A. de Euskadi en 2001 lo fueron por cuenta de Osakidetza en un 79,2% de los casos, en un 2,3% fue a cargo de Mutuas Patronales y de Accidentes de Trabajo, en un 13,2% a cargo de entidades aseguradoras privadas, un 2,2% a cargo de los particulares, el 1,2% por Mutuas de Accidentes de Tráfico y el restante 2% a cargo de Mutua Foral, ISM e Insalud y otros.

## JARDUERA EKONOMIKOA

### Gaixoak, erregimen ekonomikoaren arabera

Ospitaleetako asistentzia nolako erregimen ekonomikoren bidez ematen den aztertzen badugu, honako hau ikusiko dugu: 2001ean, gaixoen %79,2 Osakidetzaren ardurapeko zentroetan atenditu ziren; %2,3, ugazaben mutuetan eta laneko istripuen mutuetan; %13,2 aseguruetxe pribatuetan; %2,2, zentro partikularretan; %1,2, trafiko-istripuetako mutuetan; eta gainontzeko %2, diputazioen, IGIren, OINen eta bestelakoen ardurapeko zentroetan.

Enfermos atendidos según régimen económico. C.A. de Euskadi. 2001 (%) Gráfico **12** **Grafikoa** **Atendiitutako gaixoak, erregimen ekonomikoaren arabera. Euskal AE. 2001 (%)**




### Gasto

El **gasto total** en el sector hospitalario alcanzó en 2001 la cifra de 1.166 millones de euros, lo que supone un 2,7% del PIB. de la C.A. de Euskadi. De este gasto el 94,6% correspondió a gasto corriente y el restante 5,4% se destinó a inversión. Dentro del gasto corriente la partida de personal es la que absorbe el mayor porcentaje (65,2%) y el capítulo de compras el 26,9%.

En el período 1996-2001 se observan fuertes incrementos en el gasto total (+34,4%) y, dentro de éste, tanto en gasto corriente (+30,5%) como en inversión (+79,2%). En los gastos corrientes destaca el aumento del gasto de personal (+21,6%) y el fuerte incremento del gasto en servicios concertados (+263%) en el último quinquenio.

Según la dependencia de los centros, la red pública registró un gasto de 982 millones de euros, el 84,2% del total, mientras que los hospitales privados alcanzaron la cifra de 184 millones de euros, el 15,8%.

### Gastua

2001ean, ospitale-sektoreko **guztizko gastua** 1.166 milioi eurokoa izan zen eta Euskal AEko BPGaren %2,7 hartu zuen. Gastu horren %94,6 gastu arruntekoa izan zen eta gainerako %5,4 inbertsiotakoa. Gastu arruntaren barruan, pertsonalari dagokion partidak hartzen du ehunekorik handiena (%65,2) eta erosketen kapituluak %26,9.

1996-2001 aldian, guztizko gastuak igoera handiak izan ditu (%+34,4), bai gastu arruntean (%+30,5), bai inbertsioan (%+79,2). Gastu arruntetan, azkeneko bosturtekoan, nabarmendu egiten da pertsonal-gastuaren igoera (%+21,6) eta zerbitzu itunduetako gastuarena (%+263).

Ospitaleen mendekotasunari dagokionez, ospitale publikoen sareak 982 milioi euroko gastua izan zuen, guztizkoaren %84,2; pribatuek, berriz, 184 milioi eurokoa, hau da, %15,8.

La estructura del gasto corriente es distinta atendiendo a la dependencia de los centros, principalmente en el capítulo de gastos de personal, el cual representa en los centros públicos el 68,2% frente al 48,6% de los privados. En cuanto a la distribución del gasto según la finalidad de los hospitales, el 90,3% correspondió a los hospitales de agudos, el 6,4% a psiquiátricos y el restante 3,3% a los de media-larga estancia.

Gastu arruntaren egitura aldatu egiten da zentroen mendekotasuna kontuan hartuta, batez ere, langileen gastuaren atalean: zentro publikoetan, %68,2 hartzen baitu; pribatuetan, berriz, %48,6. Ospitaleen helburuaren arabera, gastua honela banatu zen: %90,3, akutuentzako ospitaleetan; %6,4, psikiatrikoetan; eta gainerako %3,3, egonaldi ertain eta luzeko zentroetan.

Distribución del gasto hospitalario por conceptos.
C.A. de Euskadi. 2001 (%) Gráfico **13 Grafikoa**

**Ospitale-gastuaren banaketa, kontzeptuka.**
**Euskal AE. 2001 (%)**




## Ingresos

En 2001 el sistema hospitalario de la C.A. de Euskadi registró unos ingresos que ascendieron a 1.101 millones de euros, correspondiendo 1.076 millones a ingresos corrientes y 24 millones a ingresos de capital.

Observando las cifras de los últimos años queda patente el profundo cambio que ha sufrido la distribución de estos ingresos. Así en 1996 la financiación mediante subvenciones oficiales de explotación suponía el 81,5% de los ingresos corrientes y los ingresos por prestación de servicios apenas suponían un 16,1%.

Sin embargo, en 2001 los ingresos por prestación de servicios representaban el 96,1% de los ingresos corrientes, mientras que las subvenciones oficiales a la explotación suponían únicamente el 0,2%. Esto es consecuencia de que actualmente, debido al cambio en la forma de gestión llevado a cabo en los últimos años desde el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco, éste compra los servicios a todos los hospitales a través de los llamados contratos programas, con lo que en la contabilidad hospitalaria aparecen como ingresos por venta de prestación de servicios.

## Sarrerak

2001ean, Euskal AEko ospitaleen sistemak 1.101 milioi euroko diru-sarrera izan zuen: 1.076 milioi sarrera arruntak izan ziren, eta 24 milioi, kapital-sarrerak.

Azken urteotako zifrei begiratuta, argi ikusten da sarrera horien banaketak izan duen aldaketa sakona. Hala, 1996an, sarrera arrunten %81,5 hartzen zuen ustiapeneko dirulaguntzen bidezko finantzaketak, eta gainontzeko %16,1 besterik ez, asistentzi zerbitzuak emateagatik jasotako sarrerek.

2001ean, aldiz, zerbitzuak emateagatik jasotako sarrerek sarrera arrunten %96,1 hartu zuten eta dirulaguntza ofizialek %0,2 bakarrik. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren kudeaketa aldatzeak ekarri du. Izan ere, azken urteotan, Osasun Sailak kontratu-programen bidez, ospitale guztiei erosten die zerbitzuak. Ondorioz, ospitaleetako kontabilitatean zerbitzuak ematea saltzeagatiko sarrera bezala agertzen dira.

Distribución de los ingresos del sector hospitalario.
C.A. de Euskadi. 1996-2001

Gráfico **14** **Grafikoa**

**Ospitale-sektoreko sarreren banaketa.**
**Euskal AE. 1996-2001**




## INDICADORES

### Indicadores de personal

La dotación de personal en equivalencia a dedicación plena (EDP) por cama ocupada fue 2,1 en lo que se refiere a personal asistencial, 0,6 en personal no asistencial, 0,5 en médicos, 0,8 en enfermería y 0,7 en auxiliares de clínica. En el período 1996-2001, para personal asistencial el indicador pasó de 2 a 2,1, mientras que para el personal médico el índice no ha variado. Por otro lado, existen 4 trabajadores de carácter asistencial por cada profesional no asistencial, 0,7 médicos por cada ATS y 0,9 médicos por cada auxiliar de clínica.

### Indicadores de actividad

El número de **camas por 1.000 habitantes** descendió de 4,1 en 1996 a 3,9 en 2001. Este descenso se dio en una proporción muy parecida en los sectores público y privado. Territorialmente, Alava con 4,4 y Gipuzkoa, con 4,8 camas por 1.000 habitantes, cuentan con una dotación superior a la de Bizkaia, que cuenta con 3,2.

Según la dependencia de los hospitales este ratio toma valores claramente superiores en los hospitales públicos tanto en Bizkaia (2,6 frente a los privados 0,7) como en Alava (3,4 frente a 1,0); sin embargo Gipuzkoa muestra la situación contraria, con un valor 2,3 para los centros públicos frente a 2,6 camas por 1.000 habitantes para los privados.

Asimismo, atendiendo a la finalidad de los centros, son los hospitales de agudos los que presentan un mayor valor con 2,7 camas por 1.000 habitantes, frente a 0,3 para los hospitales de media y larga estancia y 0,9 para los psiquiátricos.

## ADIERAZLEAK

### Langileen adierazleak

Langile-kopurua, betiere dedikazio osoko baliokidetzan (DOB), honelakoa izan zen ohe okupatu bakoitzeko: asistentzi langileak, 2,1; asistentziaz kanpokoak, 0,6; medikuak, 0,5; erizainak, 0,8; eta klinika-laguntzaileak, 0,7. 1996-2001 aldian, asistentzi langileentzako adierazlea 2tik 2,1era pasa zen eta medikuen indizea ez zen aldatu. Bestalde, 4 asistentzi langile daude asistentziak kanpoko profesional bakoitzeko, 0,7 mediku OLT bakoitzeko eta 0,9 mediku klinikako laguntzaile bakoitzeko.

### Jarduera-adierazleak

**1.000 biztanleko ohe-kopuruak** behera egin du 1996ko 4,1etik 2001eko 3,9ra. Beherakada hori antzeko proportzioan gertatu da sektore publikoan zein pribatuan. Lurraldea kontuan hartuz, Arabak (1.000 biztanleko 4,4 ohe) eta Gipuzkoak (4,8 ohe), Bizkaiak (3,2) baino hornidura handiagoa dute.

Ospitaleen mendekotasunaren arabera, ratio horrek balio altuagoak hartzen ditu ospitale publikoetan, Bizkaian (2,6 ohe, pribatuetako 0,7n aldean) eta Araban (3,4, 1,0ren aldean); Gipuzkoan, aldiz, egoera kontrakoa da: zentro publikoetarako 1.000 biztanleko 2,3ko balioa du eta pribatuetarako 2,6 ohekoa.

Ospitaleen helburuari dagokienez, akutuentzakoak dute baliorik handiena, 1.000 biztanleko 2,7 oherekin; egonaldi ertain eta luzekoen (0,3) eta psikiatrikoen (0,9) aldean.

Camas por cada 1.000 habitantes según la dependencia y finalidad de los hospitales, por territorios históricos. 2001

Gráfico **15 Grafikoa**

**1.000 biztanleko oheak, ospitaleen mendekotasunaren eta helburuaren arabera, lurraldeka. 2001**




El número de **días de estancia por cada 1.000 habitantes** fue en 2001 de 1.150 de los cuales 802 se atendieron en hospitales públicos. Los hospitales de agudos absorbieron 740 estancias, los psiquiátricos 314 y los de media-larga estancia 95. Territorialmente, Bizkaia registró el menor valor con 956 días de estancia por 1.000 habitantes, mientras Alava y Gipuzkoa tuvieron 1.233 y 1.436 respectivamente.

Este indicador ha experimentado un descenso del 4,5% en el período 1996-2001. Por territorio, es Bizkaia el que muestra la menor caída, en torno al 3%, mientras Alava y Gipuzkoa caen un 5,9% y 6% respectivamente.

Según la finalidad del hospital, destaca el importante descenso en estos años del número de estancias por 1.000 habitantes en los hospitales de media-larga estancia (-20,2%), los de agudos experimentan un descenso del 4% y los psiquiátricos se mantienen en las mismas cifras que en 1996. Por dependencia, en los hospitales públicos el descenso ha sido del 0,5% y en los privados del 11,9%.

La **frecuentación hospitalaria por cada 1.000 habitantes** (obtenida a partir del número de hospitalizaciones) alcanzó 134 en 2001, siendo su valor 100 en la red hospitalaria pública. Por finalidad, los hospitales de agudos presentan la frecuentación más elevada con 130, siendo mucho menor en media-larga estancia (2,8) y en psiquiátricos (1,3). Territorialmente, Gipuzkoa con 142 tuvo la mayor frecuentación, seguida de Alava y Bizkaia ambas con 130.

**1.000 biztanleko egote-egunak** 1.150 izan ziren eta horietatik 802 ospitale publikoetan atenditu ziren. Akutuentzako ospitaleek 740 egonaldi batu zituzten; psikiatrikoek, 314; eta egonaldi ertain eta luzekoek, 95. Lurraldeka, Bizkaiak izan zuen 1.000 biztanleko egonaldi kopururik txikiena, 956; Arabak eta Gipuzkoak, berriz, 1.233 eta 1.436 izan zituzten, hurrenez hurren.

Adierazle hori %4,5 jaitsi da 1996-2001 aldian. Lurraldeka, Bizkaian jaitsi da gutxien, %3 inguru; eta Araba eta Gipuzkoan %5,9 eta 6 jaitsi da, hurrenez hurren.

Ospitaleen helburuari dagokionez, aipatzekoa egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetan izan duten jaitsiera (%-20,2) 1.000 biztanleko egonaldien kopuruan. Akutuen ospitaleek %4ko jaitsiera izan dute eta psikiatrikoak 1996ko zifrei eutsi diete. Mendekotasunaren arabera, ospitale publikoetan %0,5 jaitsi dira eta pribatuetan %11,9.

**1.000 biztanleko ospitale-maiztasuna** (ospitaleratze-kopurutik lortzen dena) 134ra iritsi zen 2001ean, eta ospitale-sare publikoak 100eko balio du Helburuaren arabera, akutuentzako ospitaleek dute maiztasunik handiena 130ekin; eta egonaldi ertain eta luzekoek (2,8) eta psikiatrikoek (1,3) askoz ere txikiagoa. Lurraldeka, maiztasunik handiena Gipuzkoan izan zen (142) eta Araban eta Bizkaian, 130.

Frecuentación hospitalaria por 1.000 habitantes.
Comparación C.A. de Euskadi - Estado

Gráfico **16** **Grafikoa**

**1.000 biztanleko ospitale-maiztasuna**
**Euskal AE-Estatua alderaketa**







**Iturriak: Eustat, INE** / Fuentes: Eustat, INE

**(*) Datuen alderaketa 1998rako egin da, argitaratutako daturik berrienak urte horretakoak baitira.**
La comparación de datos se realiza para 1998 debido a que los datos más recientes publicados corresponden a dicho año.

En la C.A. de Euskadi se atendieron 461 **urgencias por cada 1.000 habitantes**, la mayoría en hospitales de agudos (458) y en la red pública (404). Territorialmente destaca Alava con 576 urgencias por 1.000 habitantes, atendiéndose 445 en Bizkaia y 438 en Gipuzkoa. Este ratio sufre un incremento del 20% desde el año 1996 cuando su valor fue de 384 urgencias.

Euskal AEn, **1.000 biztanleko** 461 **larrialdi** atenditu ziren; horietatik gehienak akutuentzako ospitaleetan (458) eta sare publikoan (404). Lurraldez lurralde honela banatzen dira: Araban 576 larrialdi 1.000 biztanleko; Bizkaian 445 eta Gipuzkoan 438. Ratio hori %20 hazi da 1996. urtetik, orduan bere balioa 384 larrialdikoa baitzen.

Urgencias atendidas por cada 1.000 habitantes.
2001

Gráfico **17** **Grafikoa**

**Atenditutako larrialdiak 1.000 biztanleko.**
**2001**



El número de **intervenciones quirúrgicas por cada 1.000 habitantes** realizadas en la C.A. de Euskadi fue en 2001 de 98, mayoritariamente en la red pública, con 61. Alava es el territorio con mayor ratio, 99, seguido muy de cerca por Bizkaia y Gipuzkoa ambas con 98. En el período 1996-2001 el incremento de este indicador fue del 15,3%.

### Indicadores de funcionamiento

La **estancia media** de un paciente en los centros hospitalarios de la C.A. de Euskadi fue en 2001 de 8,6 días, siendo de 8 días en los centros públicos y 10,2 en los privados. Este indicador varía considerablemente según la finalidad del hospital, situándose en 5,7 días en agudos, 34 días en media-larga estancia y 237 en psiquiátricos. Por territorios, Bizkaia tiene una estancia media notablemente más baja (7,3) que Gipuzkoa y Alava, con 10 y 9,4 días respectivamente.

Azkenik, 2001ean, **1.000 biztanleko egindako ebakuntza kirurgikoen** kopurua 98koa izan zen, gehienak sare publikoan (61). Araba da ratiorik handiena duen lurraldea (99) eta horren atzetik daude Bizkaia eta Gipuzkoa, biak 98rekin. 1996-2001 aldian, adierazle horrek %15,3ko igoera izan du.

### Funtzionamendu-adierazleak

Euskal AEko ospitaleetan, 2001ean, gaixoen **batez besteko egonaldia** 8,6 egunekoa izan zen: ospitale publikoetan, 8koa; eta pribatuetan, 10,2koa. Adierazle hori aldatu egiten da ospitalearen helburuaren arabera: akutuentzakoetan, 5,7 egunekoa izan da; egonaldi ertain eta luzekoetan, 34 egunekoa; eta psikiatrikoetan, 237koa. Lurraldez lurralde, Bizkaiak batez besteko egonaldi askoz txikiagoa dauka (7,3); Gipuzkoak eta Arabak baino (10 eta 9,4 egunekoak, hurrenez hurren).

Evolución de la estancia media (días) en la C.A. de Euskadi. 1986-2001. Gráfico **18 Grafikoa** **Batez besteko egonaldiaren bilakaera (egunak) Euskal AEn. 1986-2001**




Desde 1996, cuando la estancia media era 9,9 días, hasta 2001, este indicador ha disminuido un 13,1%, siguiendo con ello la tendencia de los últimos quince años (-37,7%) (especialmente en los hospitales de agudos). Evolución similar presenta la estancia media en cirugía, con un descenso del 22,6% desde 1996 (-60% en los últimos quince años).

El **índice de ocupación** en los hospitales de la C.A. de Euskadi alcanzó el 81% en 2001, situándose en el 85% en el caso de los hospitales públicos y en el 72,5% en los privados. En los psiquiátricos la ocupación fue del 97%, en media-larga estancia del 84% y en agudos del 75%. Territorialmente, Gipuzkoa, con un 82%, y Bizkaia, con un 81,3%, tuvieron índices de ocupación superiores al de Alava, con un 77,5%.

1996an, batez besteko egonaldia 9,9 egunekoa zen eta ordutik 2001era adierazle hori %13,1 murriztu da (batez ere, akutuen ospitaleetan) azken hamabost urteetako joerari jarraituz (%-37,7). Antzeko bilakaera izan du kirurgiako batez besteko egonaldiak, 1996tik %22,6 murriztu baita (%-60 azken hamabost urteetan).

EAEko ospitaleetako **betetze-indizea** %81ekoa izan zen 2001ean: publikoetan, %85koa; eta pribatuetan, %72,5koa. Psikiatrikoetan, betetzea %97koa izan zen; egonaldi ertain eta luzekoetan, %84koa; eta akutuenetan, %75ekoa. Lurraldeka, Gipuzkoak %82rekin eta Bizkaiak 81,3rekin, betetze-indize altuagoak izan zituzten Arabak baino, azken honek %77,5ekoa izan baitzuen.

La **rotación por cama** fue de 34,5 pacientes, siendo 38,8 en los hospitales públicos y 25,9 en los privados. Por finalidad del centro, la rotación se situó en torno a 48 en los hospitales de agudos, fue 9 en media-larga estancia y 1,5 en psiquiátricos, lo que muestra la clara relación inversa existente entre este indicador y el de estancia media. De hecho, al observar la evolución de este índice en el período 1996-2001, la rotación ha experimentando un aumento del 17,3% desde 1996 (+66,7% en los últimos quince años).

Por territorios, el mayor índice corresponde a Bizkaia, con 40,4, mientras que Alava y Gipuzkoa tienen ambos un índice 30 de rotación por cama.

La **tasa de mortalidad bruta** (en función de las altas por fallecimiento) ha sido del 3,2% en el total de los hospitales de la C.A. de Euskadi. Este indicador es más elevado en los hospitales públicos (3,6%) que en los privados (2,1%). En los centros de agudos, el porcentaje de altas por causa fallecimiento es del 2,9%, en media-larga estancia (crónicos) es del 21,2%  y en psiquiatricos del 2,8%.

El número de **necropsias por cada 1.000 fallecimientos** realizadas en los hospitales de la C.A. de Euskadi fue de 59,6, aunque las cifras son muy dispares según la dependencia del centro; en los centros públicos llego a 70,6, mientras que en los privados se quedó en 2,7. En el período 1996-2001 la tendencia de este indicador es descendente pasando de 79,5 en 1996 a 59,6 en 2001 (-25%). Esta situación se repite  tanto en centros públicos como en privados.

### Indicadores económicos

El **gasto por unidad básica asistencial** (U.B.A.) alcanzó en 2001 los 345 euros, con un incremento del 8,5%

**Oheko txandakatze-indizea** 34,5 gaixokoa izan zen: ospitale publikoetan, 38,8koa; eta pribatuetan, 25,9koa. Zentroaren helburuaren arabera, txandakatze-indizea 48 inguruan kokatu zen akutuen ospitaleetan, 9koa izan zen egonaldi ertain eta luzekoetan eta 1,5ekoa psikiatrikoetan. Horrek guztiak argi azaltzen du adierazlearen eta batez besteko egonaldiaren arteko alderantzizko erlazioa. Izan ere, indize horrek 1996-2001 aldian izandako bilakaera aztertuta, txandakatzeak %17,3ko gehitzea izan du 1996tik (%+66,7 azken hamabost urteetan).

Lurraldez lurralde, indizerik handiena Bizkaiari dagokio, 40,4rekin; Arabak eta Gipuzkoak, berriz, oheko 30eko txandakatze-indizea dute.

**Hilkortasun-indize gordina** (hiltzeagatiko alten arabera), EAEko ospitale guztiak hartuz, %3,2koa izan da. Adierazle hori handiagoa da ospitale publikoetan (%3,6) pribatuetan (%2,1) baino. Akutuentzako zentroetan, hiltzeagatiko alten portzentaia %2,9koa da; egonaldi ertain eta luzekoetan (kronikoak), %21,2koa; eta psikiatrikoetan, %2,8koa.

Euskal AEko ospitaleetan, **mila hildako bakoitzeko** 59,6 **nekropsia** egin ziren. Zentroaren mendekotasunaren arabera, zifra oso desberdinak ditugu: zentro publikoetan 70,6ra iritsi ziren, eta pribatuetan, berriz, 2,7era. 1996--2001 aldian, adierazlearen joera beheranzkoa izan da:1996an 79,5ekoa izan zen, eta 2001ean, 59,6koa. Egoera hori errepikatu egiten da, bai zentro publikoetan, bai pribatuetan.

### Adierazle ekonomikoak

2001ean, **asistentziako oinarrizko unitateko (AOU) gastua** 345 pezetara iritsi zen. %8,5 igo zen, urreko urte-

Gasto por habitante y gasto por unidad básica asistencial (U.B.A.). 1996-2001. Gráfico **19 Grafikoa** **Gastua biztanleko eta gastua asistentziako oinarrizko unitateko (AOU). 1996-2001**



respecto al año precedente y del 32,2% desde 1996. Territorialmente, el gasto por U.B.A. es superior en Bizkaia, con 385 euros, siendo 310 euros en Alava y 313 euros en Gipuzkoa.

Según la dependencia de los hospitales también existen claras diferencias, ya que el gasto fue de 397 euros por U.B.A en los centros públicos frente a 204 en los privados. Asimismo, atendiendo a la finalidad del centro, son los hospitales de agudos los que realizaron un mayor gasto, con 419 euros por U.B.A., seguidos por los de media-larga estancia con 186 euros y los psiquiátricos con 114.

El sector hospitalario realizó en 2001 un **gasto por habitante** de la C.A. de Euskadi de 560 euros, lo que supone un incremento respecto a 1996 del 33,3%. Por territorios históricos, Bizkaia presenta el valor más bajo con 529 euros por habitante, mientras que Alava y Gipuzkoa gastaron 594 y 598 euros respectivamente.

aren aldean, eta %32,2 1996tik. Lurraldearen arabera, AOUko gastua handiagoa da Bizkaian (385 euro); Araban, 310 eurokoa izan zen, eta Gipuzkoan, 313koa.

Ospitaleen mendekotasunaren arabera ere aldeak daude: AOUko gastua 397 eurokoa izan zen zentro publikoetan eta 204koa pribatuetan. Ospitaleen helburuei dagokienez, akutuentzako ospitaleek AOUko 419 euroko gastua izan zuten, handiena; egonaldi ertain eta luzekoek, 186 eurokoa, eta psikiatrikoek, 114koa.

2001ean, Euskal AEko **biztanle bakoitzeko** 560 euroko **gastua** izan zuen ospitale-sektoreak, hau da, 1996. urtearen aldean %33,3 gehitu da. Lurraldez lurralde, indizerik baxuena Bizkaiari dagokio, biztanleko 529euroko gastuarekin; Arabak eta Gipuzkoak, berriz, 594 eta 598 euro gastatu zituzten, hurrenez hurren.

Nota: Los conceptos y definiciones así como la metodología utilizada se pueden encontrar en la siguiente dirección: www.eustat.es/document/metodo_c.html.

Oharra: Erabili diren kontzeptuak, definizioak eta metodologia honako helbide honetan aurki ditzakezu: www.eustat.es/document/metodo_e.html.